

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ondare Kudeaketa

Herritarren Segurtasunaren Sailari atxikitako ibilgailu bati sailkapen juridikoa aldatzea eta Arabako Foru Aldundiari doan lagatzea

Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarren Segurtasunaren Sailak eskaera egin dio Ogasun Sailari, Arabako Foru Aldundiari ibilgailu bat doan lagatzeko beharrezko diren izapideak egin ditzan.

Udalaren jabetzakoa da VI-5787-X matrikula eta WDB6770841K394642 bastidorea dituen E-4 autoeskala ibilgailua, Mercedes markakoa. Vitoria-Gasteizko Udalaren Herritarren Segurtasunaren Saileko Prebentzio eta Su Itzaltze Zerbitzuari atxikita dago, eta jabetza publikoko ondasunaren sailkapen juridikoa du Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorrean, V-397 epigrafearen pean, erosteko zenbatekoa 381.642,69 euro delarik.

Arabako Foru Aldundiak eta Vitoria-Gasteizko Udalak elkarrekin ematen dute prebentzio eta su-itzaltze zerbitzua, bakoitza bere eskumenez baliatuz eta Arabako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamenduko Foru Planean ezarritakoari jarraituz; horren barruan, zenbait hitzarmen sinatu dituzte zerbitzu emateko modua eta horrek berekin dakartzan kontraprestazio ekonomikoak arautzeko.

2017ko urriaren 11n sinatutako hitzarmen baten bidez, aldeek zenbait konpromiso hartu zituzten beren gain, eta horien artean, Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoak diru-kopuru bat jarri zuen kapital-dirulaguntza gisa, Udalak autoeskala ibilgailu bat eros zezan Vitoria-Gasteizko suhiltzaileen etxerako. Ibilgailu berria erabiltzeko moduan zegoenean, VI-5787-X matrikula duen E-4 autoeskaileradun ibilgailua Aldundiari lagatzeko konpromisoa hartu zuen Udalak.

Urriaren 8an, autoeskaileradun ibilgailu berria entregatzea epea atzeratu egin zela jakinazion PSISZk Ogasun Sailari, eta 2019ko abenduan iritsiko zela. Hori entregatzen denez geroztik tramitatu daiteke udalaren titularitateko ibilgailua Aldundiari lagatzea.

Kontuan izanik ibilgailua prebentzio eta su itzaltze zerbitzurako erabiltzen jarraituko dela, bi erakundeak lankidetzan ari baitira horretan, eta Toki Erakundearen Ondasunen Araudiak —ekainaren 13ko 1372/86 ED— 5. artikuluan xedatutakoaren arabera jabari publikoko ondasunak besterenezinak direla, zerbitzu publikoari atxikita egotetik askatu beharko da lehenengo, gero Arabako Foru Aldundiari laga ahal izateko.

Udalbatzaren batzordean onetsitako irizpenak bi alderdi barne hartzen zituen: ibilgailuaren sailkapen juridikoa aldatzea, ondarezko ondasuntzat jotzeko, eta Arabako Foru Aldundiaren alde lagatzea, lehenago aipatutako hitzarmena betez.

2020ko maiatzaren 20an egindako nahitaezko txostenean, ordea, Udalbatzaren behin-behineko idazkari nagusiak dio ibilgailua lagatzearekin lotutako xedapena ez datorrela zuzenbidearekin bat, eta erabakitik kendu beharra dagoela.

Txostenean adierazitakoa betetzeko, berriro idatzi da erabaki-proposamena; beraz, azaldutako guztia kontuan hartuz, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 19.3 eta

22.2. l) artikuluetan eta Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiaren 8.2 artikuluan xedatutakoaren ildotik, Udalbatzari erabaki hau helaraztea proposatzen da:

Lehena: VI-5787-X matrikula duen E-4 autoeskala ibilgailuari (V-397 gisa inbentariatua) sailkapen juridikoa hasiera batean aldatzea, udal jabari publikoaren atxikipenetik askatzeko eta ondarezko ondasun gisa sailkatzeko.

Bigarrena: Erabaki hau hilabetez jendurrean jartzea udalaren iragarki-taulan eta ALHAOn, edonork egokitzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan.

Hirugarrena: Jendurreko informazio aldi alegaziorik aurkeztu ezean, delako ibilgailuaren sailkapen juridikoaren aldakuntza behin betikotzat jotzea.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 20an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE